

BEZEROAK

Gure enpresa kirolarekin interesa duten, baina arazo mentalak zein fisikoak dituzten pertsonentzat prestatuta dago.

Zailtasun motaren arabera banaketa:

- **Arazo mentalak** dituzten pertsonak: Izena eman dezakete **15 eta 40 urte** bitarte badituzte.
- **Arazo fisikoak** dituzten pertsonak: Izena eman dezakete **15 eta 60 urte** bitarte badituzte.



Talde bakoitzaren barruko banaketa adinaren arabera:

- **25 urtetik beherakoak: Arratsaldeko taldera** egokituko dira.
- **25 urtetik gorakoak: Goizeko taldera** egokituko dira, baina hori aldatu daiteke urtearen eta taldearen egoeraren arabera.

Urtean zehar 60 pertsona hartzeko gaitasuna dugu, gure enpresa ez baita oso handia. 4 langile gara, eta 15 pertsonako taldeekin entrenamenduak egiten ditugu. Baldintzak kontuan hartuta, Gipuzkoako jendeak lehentasuna du gure taldeetan sartzeko orduan.

Entrenamenduez gain, bezero bakoitzarentzako terapia pertsonalizatuak ditugu. Horrez gain, hilabeteen behin 10 pertsonako taldeetan egingo diren talde-terapiak ere eskaintzen ditugu. Hasiera batean, terapia hauek gure bezeroentzat soilik prestatuta daude. Hau da, entrenatzera etortzen diren pertsonentzat.



Gure taldean sartu ahal izateko, jarraibide batzuk bete behar dira. Leku gutxi ditugu, horregatik ezin diogu edonori sartzen utzi.

- Batetik, justifikatu behar da ez duzula inor zaintzen zaituenik.
- Bestetik, medikuaren egiaztagiria izan behar duzu, desgaitasuna duzula frogatzeko eta guk gezurretan ez zabiltzala ikusteko.
- Azkenik, bizitzan zehar edukitako jarrerak kontatu behar dizkiguzu gu arazo horien aurrean nola jokatu behar dugun jakiteko.

Gure online dendari dagokionez, edonork sartu eta erosi dezake. Bertan nahi dituzten produktuak eros ditzakete.



Hainbat neurriko eskaintza dugu:

- XS, S, M, L, XL haurrentzako tailajea
- XS, S, M, L, XL helduentzako tailajea.

Bezero guztientzat moldatutako taila desberdinak ditugu. Txapelketa egunean gure produktuak jendaurrean eskainiko ditugu; gainerako urtean, online bakarrik erosi ahal izango dira.